

EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

BI MILA ETA ZORTZI KO EKAINAREN 12AN OSPATUTAKO EHUN ETA HOGEITA ZORTZIGARREN SAIOA

PRESTAKUNTZA-BEHARREN, IKERKETAREN ETA EUSKAL
ADMINISTRazio PUBLIKOEN ZERBITZUEN AZTERKETA

"Gizarte Kontseiluaren 2007-2010 Plan Estrategikoaren zein 2008rako aurreikusitako Plan Eraginkorraren arabera agindu teknikoen agiria onartzea, prestakuntza-beharren, ikerketaren eta Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuen azterketa kontratatze aldera, gehieneko zenbatekoa 60.000 eurokoa izango delarik.

1.- KONTRATUAREN HELBURUA

Euskal Administrazio Publikoen prestakuntza-, ikerketa- eta zerbitzu-beharrizan eta eskaeren artean, beti ere plan estrategikoei eta/edo kudeatzaileei lotuta daudela, Euskal Herriko Unibertsitateak zeini erantzun ahal dien zehaztea eta analizatzea.

2.- METODOLOGIA

Ikerketa egiteko erabiliko diren metodologia-ardatzek honako hauek barne izan behar dituzte:

- Inguruko bestelako administrazioekin laguntza-planak garatzen dituzten beste unibertsitate batzuekiko konparazio-analisia.
- Unibertsitateko gutxienez ehun bat "adituri" egindako elkarriketak, euren eskarmentuaren eta laguntzeko iradokizunen ekarpena egin dezaten.
- Euskal Administrazio Publikoen plan estrategiko eta kudeatzaileen analisia.
- Jardunbide publikoen egitasmoetan identifikaturik dauden politika publikoen gutxienez ehun bat kudeatzaileei egindako elkarriketak.

3.- PROPOSAMENAREN XEHETASUNAK

Eskaintzak honako atal hauek esplizituki adierazi behar ditu:

- Proposamenaren deskribapena.
- Egin beharreko lanaren mugarri garrantzitsuenak.
- Lanak egingo dituen taldearen curriculumak.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

- Lan egitasmoa.
- Erabili beharreko metodologia.
- Lan-taldeko partaide bakoitzak egindako lanak.

4.- LANEN ANTOLAKUNTZA

Lanak enpresa esleipenduneko langileek egingo dituzte, Gizarte Kontseiluaren gainbegiratzearen pean.

Batzorde batek, alderdi kontratatzaile bakoitzaren bina ordezkari gehienez osatutakoak berak, kontratuaren helburu diren zereginak gainbegiratu ditu.

5.- LANAK EGITEKO EPEALDIA

Lanak egiteko epealdia 4 hilabetekoa izango da.

6.- AURREKONTUA

Kontratuaren aurrekontua 60.000 eurokoa izango da, BEZa barne.

7.- ESLEIPEN PROZEDURA

Esleipena Publizitaterik gabeko prozedura Negoziatuaren bidez egingo da, gutxienez hiru eskaintza direlarik.

8.- KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa aukeratuko den proposamen ekonomikoaren nahiz Gizarte Kontseiluaren dagokion esleipenaren ondorioa izango da.

Eskaintzaileek eskainitako prezioek, haien egitura edozein delarik ere, honako hauek barne izan behar dituzte derrigorrez: lanetan eragina izango duten kostuak oro, zuzenak nahiz zeharkakoak, zerbitzuko langileen edo haiei lagunduko dietenen ordainsaria, langileen Gizarte Segurantzaren eta gizarte-kargak, edozein zerga-esparrutako zergak nahiz arielak, BEZa barne, baita industria-etekina bera ere; ondorioz, esleipendunak ezin izango du atal horietako bat ere eskatu eskainia izan den eta UPV / EHUKo Gizarte Kontseiluak onartu duen prezioetik kanpo

Esleipendunak aipatutako prezioei eutsi egingo die kontratuak dirauen epealdi guztian zehar.

9.- PREZIOAREN ORDAINKETA

Lanak ordainduak izango dira eskainitako zenbatekoa daukan faktura aurkeztu ondoren aurkeztutako lana behin onartuta.



Gizarte Kontseilua - Consejo Social

10.- LANAREN JABETZA

Gizarte kontseilua izango da honako kontratu honen helburu den egindako lanaren jabe eskusiboa, haren alderditako edozeinetan.

11.- BALDINTZA TEKNIKOEN GUTUNAZALEAN SARTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaintzaileek aurkeztu beharreko Baldintza Teknikoen gutunazalak honako atal hauek barne izan behar ditu derrigorrez:

- Proposamenaren definitzea
- Egindako lanak.
- Lan egitasmoa.
- Lanari ekingo dion talde tekniko eta profesionalaren osaketa.

12.- ESLEIPEN IRIZPIDEAK

Ondoren adierazten dira jasotako proposamenak balioesteko irizpideak eta haiek pisu ponderatuen balioa:

- | | |
|-------------------------|---------|
| 1. Egindako lanak | % 30 |
| 2. Taldearen curriculum | % 20 |
| 3. Lan egitasmoa | % 50.”. |